

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HEZKUNTZA ETA KULTURA SAILA

Kultura

11. dirulaguntza-ildoko –2019ko Andre Mari Zuriaren jaietan parte hartzen duten blusa eta neska taldeei emateko dirulaguntzak– deialdiaren ebazpena

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko uztailaren 19an egindako ohiko bilkuran:

11. dirulaguntza-ildoko –2019ko Andre Mari Zuriaren jaietan parte hartzen duten blusa eta neska taldeei emateko dirulaguntzak– deialdiaren ebazpena.

2019ko maiatzaren 17an egindako ohiko bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak 11. dirulaguntza-ildoko –2019ko Andre Mari Zuriaren jaietan parte hartzen duten blusa eta neska taldeei emateko dirulaguntzak– deialdia eta berariazko oinarriak, eta 2019ko ekainaren 5eko ALHAOn (65. zenbakia) argitaratu ziren.

2019ko ekainaren 20an bukatu zen eskabideak aurkezteko epea.

“Gasteizko Jaiak” Nesken eta Blusen Elkarteen Federazioak 2019ko ekainaren 21ean aurkeztu zuen dirulaguntza-eskaera, hots, epez kanpo.

Dirulaguntza epe barruan aurkeztu duen erakundea Gasteizko Blusen eta Nesken Batzordea da.

2019ko uztailaren 9an bildu zen balioespen organoa, aurkeztutako eskabideak oinarri arautzaileetan ezarritako irizpideak kontuan hartuz balioesteko, eta dirulaguntzak emateko proposamena jaso zuen aktan, epe barruan jasotako eskaera bakarrari buruz, alegia, Gasteizko Blusen eta Nesken Batzordearenari buruz. Hauxe dio aktak:

Hauxe da dirulaguntza emateko proposamena, zazpigarren oinarriko balioesteko irizpideen arabera:

– 60.000 euro: Entitate eskatzaile bakoitzak dirulaguntza finkoa jasoko du hura osatzen duen blusa eta neska talde bakoitzeko, musika-girotzea badute. Parte-hartzen duen talde bakoitzari ordaintzen zaion kopurua entitate eskatzaile guztien artean aurkeztutako taldeen kopuru osoaren arabera izango da.

– Gasteizko Blusen eta Nesken Batzordea, 20 taldek osatua: 60.000,00 euro.

– 27.000,00 euro: Entitate eskatzaile bakoitzak dirulaguntza jasoko du aurkeztu duen jai-programaren balioespenaren emaitzaren arabera, irizpide hauek kontuan izanik:

Programa osatzen duten jardueren kopurua: 10 puntu.

Jarduera kopuru handiena duen programak lortuko du gehieneko puntuazioa, 7. puntuan ezarritako betekizunak betez gero. Gainerakoa modu proportzionalean kalkulatu da.

Irizpide hauek aintzat harturik balioetsiko dira jarduerak, banan-banan: 20 puntu.

– Jardueraren kalitatea: 10 puntu.

– Jardueraren antzinatasuna: 4 puntu.

– Publiko hartzailea: 6 puntu.

Programa bakoitzaren jarduera guztiak balioetsi eta batez besteko aritmetikoa kalkulatu da; horixe izango da atal honetako azken puntuazioa. Atal honetako zenbateko osoa (27.000 euro) proportzionalki banatu da, lortutako puntuazioaren arabera.

Erakunde eskatzaile bakoitzak programatutako jarduerak oro balioetsi eta puntuazioa eman ostean, zein azpiko koadroan biltzen baitira, hauxe erabaki da.

IRIZPIDEAK	BLUSEN ETA NESKEN BATZORDEA	
	JARDUERA-KOPURUA	PUNTUAK
Jarduera-kopurua: 10 puntu	58	10

JARDUERAK	PUNTUAK, GUZTIRA	PUNTUAK
Kalitatea: 10 puntu	336	5,8
Antzintasuna: 4 puntu	226	3,5
Publikoa: 6 puntu	232	4
Guztira	794	23,7

— Gasteizko Blusen eta Nesken Batzordea: 21.330,00 euro

Emaitzak, atal bitakoak bilduta:

— Gasteizko Blusen eta Nesken Batzordea: 81.330,00 euro

2019/2312.03.3381.489.11 partidana bada aurrekontu-zuzkidura egoki eta nahikorik.

Udalaren Dirulaguntzak arautzeko 2005eko ekainaren 17ko Ordenantzaren 5.1 artikulua xedatzen duenez, Tokiko Gobernu Batzarrak du dirulaguntzak emateko eskumena; hori kontuan hartuz, eta Tokiko Gobernu Batzarrak eskumenak eskuordetzeko 2019ko ekainaren 21ean hartutako erabakia dela medio, Hezkuntza eta Kultura Saileko zinegotzi ordezkariak erabaki-proposamen hau egiten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki-proposamena

1. Ez onartzea “Gasteizko Jaiak” Neska eta Blusen Elkarten Federazioak aurkeztutako eskabidea, epez kanpo aurkezteagatik.

2. Gasteizko Blusen eta Nesken Batzordeari dirulaguntza ematea onestea, 81.330,00 euroko zenbatekoetan, 2019/2312.03.3381.489.11 partidaren kargura.

3. Kopuru horren ehuneko 80 ordaintzea. Gainerako ehuneko 20 jarduera bukatu eta gastuak justifikatu ondoren ordainduko da, dirulaguntza hauek arautzen dituzten oinarrietan ezarritakoaren arabera.

Ebazpen honen kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazte-egunaren biharamunetik, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organoari berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazte-egunaren biharamunetik; horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko uztailaren 19an

Hezkuntza eta Kultura Saileko zuzendaria
FRANCISCO JAVIER GALVE BORJA